

Martin Ugalderi buruzko jardunaldiak (azaroa-5-9)

Gillermo ETXEBERRIA

Azken urteotan, sarri omendu izan da Martin Ugalde. Eta, dudarik ez, arrazol asko eta asko dagoela horretarako.

Martin Ugalde(1921) andoaindarra, pertsona kultoa, euskaltzalea, idazlea, arlo askoren jorrazalea, garai historiko bateko euskal idazlerik finenetakoa eta jakintsuenetakoa izan dugu.

26 urte zituela Venezuelara joan zen eta han iragan zituen hurrengo 25 urteak. Urte oparoak euskal idazleak eskaini zituenak.

Azaroaren Setik 9ra berari buruz antolatutako jardunaldien ize-nak laburbiltzen du bere lldoa: *Martin Ugaldek bere herria helburu*. "Konpromisioa eta pasioa", semearen hitzetan: "konpromisioa bere herriarekin". "Basamortu bat zen leku batean, landareak lortzeko haziak banatzen eta lantzen".

Gai asko eta asko dira Martin Ugaldek bere idazle ibilbidean jorratu dituenak. Hirutan laburtu zituen bere semeak: "politikan hartu zituenak lehenik, historia eta literaturan hartuak gero, eta gutzia herriari buruzko egitasmo baten pean" jarri izana.

Hitzaldiok bost egunetan zehar garatu ziren: lehen egunean, Bernardo Atxaga, Ugalde euskal literaturan kokatuz. Bigarrean, Caracasen bizi den Kepa Derteano jaunaren mintzaldia, Ugalderen lana eta euskal erbesteratu gisa bizitakoari buruz. Arratsaldean, Joan Mari Torrealdai, idazle eta Egunkariako administrazio kontselluko lehendakariak "intelektualen gutunei buruz" mintzatu zuen.